

# Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

XABIER OLARRA ITZULTZAILE ETA IGELA ARGITALETXEKO EDITOREA



Xabier Olarra itzultzaile eta editorea, pasa den ostegunean Diario de Navarrako liburutegian.

CALLEJA

## “Inoiz ez zait tokatu gogoko ez dudan zerbait itzultzea”

Literatura unibertsalaren 30 lanetik gora euskaratu eta argitaratu ditu, batez ere genero beltzekoak. Duela gutxi Xabier Olarrak (Tolosa, 1953) bere ibilbidearekiko omenaldia jaso du, Dabilen Elea sariaren bitartez.

**NEREA ALEJOS**  
Iruñea

Itzultzaile batentzat, arruntagoa izaten da bere lana itzalpean gelditzea, baina Xabier Olarraren kasuan ez da hala gertatu. Hogeita hamar lanetik gora euskaratu ditu 1985. urteaz geroztik, gehienak Igela argitaletxearen eskutik, bi lagunekin batera sortutakoa. Raymond Queneauren *Estilo-ariketak* liburuaren itzulpenari esker jaso zuen 2006an Euskadi Saria, eta 2012an ere sari bera jaso

zuen, Arantzazu Royorekin batera, Al Aswaniren *Jakobien eraikina* lanarekin. Gutxi ez balitz, duela bi aste Dabilen Elea saria jaso zuen Donostian, liburugintzaren alorrean ibilbide jakin bati egiten zaion errekonozimendu gisa.

**Dabilen Elea Saria ibilbideari emandako omenaldia da. Nola ikusten duzu zurea?**

Nire kabuz hasi nintzen itzulpegin. Lehenbiziko liburua besoazpian hartuta, —*Karteroak beti deitzen du bi aldiz*—, Elkar argi-

taletxera joan nintzen. “Hor daukazue, argitaratu nahi baduzue”, esan nien. Normalean itzulpenek ez zuten izaten arrakasta handirik, baina liburu horrek izan omen zuen. Euskaltegietan eta institutuetan irakurtzen zen. Orduan beste nobela beltz bat proposatu nien, Jim Thompsonen *1280 arima*, eta hura ere nahiko ondo ibili omen zen. Hortik hasita, pentsatu nuen hori guztia askoz modu sistematikoagoan egin zitezela eta Igela argitaletxearen ideia sortu zen.

**Nobela beltzarekiko zaletasunari esker hasi zinen itzulpegin?**

Nobela beltzaren zale egin nintzen Hammetten *Uzta Gorria* irakurri nuenean. Orduan irakasle hasiberria nintzen ni, 28 urtekin. Hondartzara joaten nintzen aldi berean liburuak nirekin hartzen ni-

tuen eta uda osoan agian 30 edo 40 liburu irakurtzen nituen. Bruguera argitaletxeak kioskoko literatura gisa argitaratzen zituen eta astero ateratzen zena irakurtzen nuen. Ehun pezeta balio zituen.

**Aurten 25. urte beteko dituzue Igela argitaletxearekin.**

Lehen gure belaunaldiko jendeak literatura gaztelaniaz irakurtzen zuen bezala, euskaraz irakurtzea lortu nahi genuen. Eta aukera hori indartu dugu, baina nire ustez literatura euskaraz irakurtzearenak ez du behar adina indarra hartu argitaletxeek normal funtzionatu ahal izateko. Orain 800 inguruko ale kopuruan ibiltzen gara, irakurle kopurua mugatua delako. Gero eta autoren gehiago daude, gero eta eskaintza handiagoa, baina irakurle eta erosle merkatua mugatua da. Beraz,

hortik datoz zailtasun batzuk. **la 20 urtez Nafarroako Gobernuako itzultzailea izan zara. Ze desberdintasun daude eremu literarioarekin konparatuz?**

Literatura gustatzen zaion batenzat, testu teknikoak edo lege bat itzultzea oso lan lehorra da. Hor ere beti daukazu zailtasun batzuk konpontzeko beharra eta horrek gero laguntzen dizu beste eremuetan zabiltzanean. Horrek burua ere jantzi egiten du, hiztegia hobetu... Baina askoz lan atsegina da literatura itzultzea, batez ere tituluak aukeratzeko dituzunean. Nire kasuan, beti hala izan da. Behin ere ez zait tokatu gogoko ez dudan zerbait itzultzea. **Euskaratu dituzun lanen artean, badago bat itzuliezina ematen duena, Queneau-en *Estilo ariketak*.**

Oso liburu berezia da. Bazeuden hamar ariketa inongo modutara itzultzerik ez zeudenak, faktore batzuegatik: umorea, hizkuntza berean barrenean egiten ziren txiste modukoak... eta abar. Horrelako gauzak, definizioz, itzuliezinak dira. Orduan, zer egiten duzu? Antzeko zerbaitekin ordezkatu.

**Gailurrera heldu zinen liburu horrekin?**

Horren aurretik ere, *Deabruaren hiztegia* itzuli nuenean, han ere nire gorabeherak izan nituen. Adibidez, zati handi batzuk bertsoz egiten ziren. Ezaugarri hauetako liburu batek urte oso bateko lana eskatzen zaitu. Kasu batzuetan, goizeko bostetan aritzen nintzen itzultzen Nafarroako Gobernura lanera joan aurretik, munduko ordu guztiak nahikoak ez bait ziren.

**Zeri eman behar zaio garrantzi gehiago: zehaztasunari ala eder-tasunari?**

Hori etengabeko borroka bat da. Testua oso zehatz itzultzen baduzu eta ez baldin bada ezer ulertzen, hobe da gauzak leuntzea. Itzultzaileak beti ibili behar du hautaketak egiten. Testuaren arima da garrantzitsuena. Beti saiatu behar zara irakurleari ahalik eta hobekien erakartzen, baina testutik aldendu gabe.

**Orduan ezinbestekoa da pazientzia edukitzea...**

Askotan, egun txarra duzulako edo despistatuta zabiltzalako, ez diozu testuari behar bezala buelta ematen eta alde batera utzi beharra dago. Gero, pazientzia pixka batekin edo umore hobearrekin, buelta ematen diozu. Niri asko pasatzen zitzaidan *Estilo ariketak* edo *Deabruaren hiztegia* itzultzean. Pasarte batzuetan “itzuliezina” etiketa jarri behar izan nuen eta aurrera jarraitu, beste momentu batean bueltatzeko.

## ‘Jainko txiki eta jostalari hura’ Iruñera helduko da otsailean

DN Iruñea

Zaharregia, txikiegia agian izeneko liburu-diskotik hamarkada bat igaro denean, Kirmen Uribe idazlea, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal

musikariak eta Mikel Valverde artista plastikoa, elkartu dira berriro *Jainko txiki eta jostalari hura* deritzon lan mamitsua eszenatokietara eramateko. Pasa den azaroan New Yorkeko Poisson Rouge aretoan estreinatu ondo-

ren, euskal artista garrantzitsuenetako batzuek elkarrekin egindako ikuskizun multimedia hau jendaurrean erakutsiko da Iruñeko Gayarre Antzokian, otsailaren lehen larunbatarekin. Honako konzeptua, aurrekoa bezala, disziplina artistiko bat baino gehiagoren adierazpenean oinarrituko da, ikuskizun koloretua, eraginkorra eta erabat liluragarria osatuz. Zuzeneko emanaldian abestiak, musikaren laguntza duten poema-irakurraldiak eta proiektzioak tartekatuko dira. Sarrerak salgai daude 8 eta 15 euro bitarteko prezioetan.



Kirmen Uribe idazlea eta Mikel Urdangarin musikaria.

FIRMA